



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Umeein elkartea Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Sareen Sarean sartu da

- Haur eta Nerabe Minbizidunen Gurasoen Euskal Federakundea erakundera batu da, dagoeneko Hirugarren Sektorre Sozialeko beste 17 sare biltzen dituen.
- Umeein elkartea, “ilusioz eta ekarpenak egiteko gogoz” sartu da Sareen Sarean, “sarean lan eginez Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala indartzeko helburuari ekiteko”.

Bilbo, 2023ko otsailak 24. Atzo ospatutako ezohiko batzar orokorrean, Umeein federazioa Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko sarearen kide berri izatea onartu zuen [Sareen Sareak](#). Haur eta Nerabe Minbizidunen Gurasoen Euskal Federakundearen sarrera aho batez onetsi dute Sareen Sareko kide guztiek.

[Umeein](#) elkartearen sarrerarekin dagoeneko **17 dira Sareen Sarean bilduta dauden Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko sareak** eta, beraz, minbizia duten adingabekoen familiak batu egin dira erakundea osatzen duten beste esparruetara.

Umeein irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1997an sortua, EAeko hiru lurraldeetan dauden guraso-elkarteen ekimenez: ASPANAFOA Araban, ASPANOGI Gipuzkoan eta ASPANOVAS Bizkaian. Federakundearen helburu orokorra **ahalik eta baliabide gehien sustatzea** eta garatzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan minbizia duten adingabeek **diagnostikatu, tratatu eta sendatzeko** ahal diren aukera gehien izan ditzaten, **bizi-kalitaterik handienarekin**.

Horretarako, guraso federatuen elkarteen lana bultzatu eta koordinatzen du. Halaber, haurren, nerabeen eta euren familien egoera hobea lortzen laguntzen duten jarduerak bultzatzen ditu **medikuntzaren, psikologiaren, gizartearen eta hezkuntzaren arloetan**.

Ainhoa Fernandez minbizia duten adingabeen familia-elkartek ordezkatu ditu Sareen Sarean. “Ilusioz eta ekarpenak egiteko gogoz sartzen gara, elkarrengandik ikasiz eta **sarean lan eginez, Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala indartzeko helburuari ekiteko**” adierazi du Fernandezek.

Bestalde, Borja Doval Sareen Sareko presidentek ongi etorria eman dio Umeein federakundeari: “Gizarte-eremu desberdinetako eragileak batzen jarraitzen dugu, sektorea indartzeko eta **Euskadi inklusiboagoa, bidezkoagoa, solidarioagoa eta parte-hartzaileagoa sustatzeko**.” nabarmendu du Dovalek.



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

Sareen Sarea eta Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala

Sareen Sarea elkartea 2014an sortu zen eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako 17 erakunde-sare biltzen ditu. Horiek guztiek hainbat esparru jorratzen dute: desgaitasuna, gizarteratzea, familia, adinekoak, haurrak, etorkinak, enplegurako zentro bereziak, ekonomia soziala, lan-munduratzeko enpresak edo garapenerako laguntza.

Hirugarren Sektore Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabetasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea.

Egun, **4.000 erakundetik gora osatzen dute, 40.000 lanpostu sortzen ditu, 160.000 boluntario baino gehiago daude** eta **Euskadiko % 2,4ko BPGren¹** baliokidea den bolumena kudeatzen du.

INFORMAZIO GEHIAGO

Jon Txarroalde

688 729 340

komunikazioa@sareensarea.eu

¹2021eko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia*. 2021eko abendua.